

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### Hasierako onarpena ematea arau subsidiarioen hirugarren aldaketa puntualari

Udalbatzak, 2016ko irailaren 8ko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea arau subsidiarioen hirugarren aldaketa puntualari, lurzoru urbanizaezineko erabilera eta jardueri buruzko 139 eta 141 artikuluen idazkera hobetzeko, eta ahalbidetzeko abeltzaintza ustiategiari lotutako etxebizitzaren eraikuntza, haren 2016ko uztaileko ingurumen azterlan estrategikoarekin batera, zeina udalak sustatu duen. Espedientea jendaurrean jartzen da berrogeita bost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan interesdunek aukera izango dute espedientea udal bulegoetan aztertu eta egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Murgia, 2016ko irailaren 22a

*Alkate lehendakaria*  
**UNAI GUTIÉRREZ URKIZA**